

MI VIDA EN ROSA



MI VIDA EN ROSA

1997. 88 min. Zuzendaria : Alain Berliner. Antzezleak: Michéle Laroque, Jean Philippe, Héléne Vincent, Georges Du Fresne, Daniel Hanssens

Elkar ezagutzen dugu(DBH)
Arabako Hezkidetza Mintegia
2002-2003

MI VIDA EN ROSA

HELBURUAK

- Norberaren boterea garatzeko ezaugarriak identifikatu.
- Nork bere burua ezagutzeko hausnarketa egin.
- Bizitza eredu ezberdinak ezagutu.
- Norbere identitatea garatzeko gizartean dauden oztopoak identifikatu.

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Jarduera honetan *Mi vida en rosa* filma erabiliko dugu aurrean jarritako helburuak lantzen errazteko.

Beharrezkoa da norberak bere identitatea eraikitzeke eredu ezberdinak izatea. Batez ere mutilek topatuko dute filma honetan bestelako ereduak.

Norberak bere identitatea garatzeko izan ditzakeen oztopoak hainbat pertsonaiengan agertzen dira.

Filma honetan protagonismoa duena estereotipo maskulinoetik kanpo dagoen mutikoa da. Nahiz eta protagonismoa mutikoak izatea, neskentzat ere interesgarria izan daiteke gizonen irudia zabaltzea eta ondorioz mutilekiko izaten dituzten jarrerak, rolak eta espektatibak aldatzeko posibilitatea ikustea.

Jarduera honetan erabiliko dugun prozedurak filma ikustea eta galdera sortaz baliatuz azterketa egitea izango dira.

Gero aipatzen dugun moduan garrantzitsua da denon artean ondorioak ateratzea eta onartzea.

FILMEAREN EZAUGARRIAK

1997. 88 min. Zuzendaria : Alain Berliner. Antzezleak: Michéle Laroque, Jean Philippe, Héléne Vincent, Georges Du Fresne, Daniel Hanssens.

Ludovic (Georges Du Fresne) neska izan nahi duen zazpi urteko mutikoa da. Bere familiarekin auzo berri batera bizitzera joan dira, amonaren ondora. Auzokideen gustukoa izateko familiak jaia antolatu dute eta auzokideak gonbidatzen dituzte. Gurasoak hasten direnean seme-alaben aurkezpena egiten, Ludovic neskaz jantzita agertu da. Hor hasiko dira gurasoek gaiari garrantzia ematen eta ez dute jakingo zer egin. Auzokideen eta eskolakoen bazterkeria sufrituko du. Baina Ludovicek bere buruarekin ziur egoteak bere berezitasuna onartua izatea lortuko du.

MI VIDA EN ROSA

1. FITXA. EZTABAIDARAKO GALDERA SORTA

1. Zer nolako gauzak zituen debekatuta Ludovicek eta zer nolakoak egin behar zituen mutila izateagatik?

Debekatutakoak	Derrigorrezkoak

2. Zergatik Ludovic-ek soinekoak jantzi, ilea luzea eraman, panpinekin jolastu...eta abar, egiten zituen?

3. Nola sentitzen da Ludovic filmaren zehar?

Hasieran :

Erdialdean:

Bukaeran :

4. Nola jokutzen dute filmean ondoko pertsonak?

- Gurasoak
- Lagunak
- Anaiak
- Arreba
- Amona
- Irakaslea
- Ikastetxeko zuzendaria

5. Nola jokatuko zenuke Ludovic bezalako mutilarekin?

6. Nola lortu du Ludovicek egoera gainditzea?

MI VIDA EN ROSA

2. FITXA. NORK BERE BURUAREKIN HAUSNARKETA EGITEKO FITXA

1. Zeure bizitzan mutila edo neska izateagatik zer nolako oztopo izan dituzu nahi zenuena egiteko?
2. Nola gainditu dituzu?
3. Gaur egun mutila edo neska izateagatik baduzu oztoporik nahi duzuna egiteko?
4. Zer egin dezakezu oztopo horiek gainditzeko?
5. Nahi baduzu hemen jarri duzuna taldean edo baten bati kontatzea oraintxe duzu aukera

IRAKASLEARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Jarduera hau egiteko bost saio erabiliko ditugu

Lehen saioa

1. Saio honetan talde handian egingo dugu lana . . Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea .Beharrezkoa ikusten badugu rola banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....
2. Hasi baino lehen jardueraren helburuak eta egiteko modua azalduko dizkiegu.
3. Aurkeztuko diegu ere ikusiko dugun filma.
4. Filma ikusteko saio hau eta hurrengoa erabiliko dugu.

Bigarren saioa

1. Bukatuko dugu filma ikusten

Hirugarren saioa

1. 1, Fitxaren galdera sorta beteko dute.
2. Hasieran bakarkako lana da, beraz gela horren arabera antolatuko dugu eta horretarako dauden arauak gogoratuko ditugu.
3. Komenigarria da ondo azaltzea galdera bakoitzaren esanahia eta adibide batzuk ipintzea.
4. Giro lasaia izateko eta kontzentratzen laguntzeko erlaxazio txikia egingo dugu hasi baino lehen.
5. Galderak egin ondoren taldeka jarriko dira eta egindakoa komentatuko dute.
6. Taldeak egingo ditugunez, antolamendu honek eskatzen dituen arauak eta rola gogoratuko ditugu.Beharrezkoa ikusten badugu behatzailea jarriko dugu.

Laugarren saioa

1. Saio honetan talde handian egingo dugu lana . . Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea .Beharrezkoa ikusten badugu rola banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....
2. Talde txikietan egindakoa talde handian komunean jarriko dute.
3. Komenigarria da denon artean ondorioak ateratzea (Zein harreman mota egon daitezke, zergatik dira baloratzekoak, zein ezaugarri baloratu .ditugu pertsonaiengan.....).

Bosgarren saioa

1. Saio honetan bakarka egingo dute lana . . Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea .
2. Giro lasaia izateko eta kontzentratzen laguntzeko erlaxazio txikia egingo dugu hasi baino lehen
3. 2. Fitxa beteko dute.
4. Nahi izanez gero egindakoa konpartituko dute
5. Gogoratu
6. karneta nertsonalean sartzea